



MAHATS BILKETA
**HODEI BELTZAK UPATEGIEN
ZERUMUGAN**

ALEGRÍA-DULANTZI

FUSIONARTE

URRIA/OCTUBRE 2019

ostirala **11** Viernes -19:30. Alde Zaharrean- Casco Histórico

COMPañÍA TURUKUTUPA

“Reziklantes”

Reciclaje sonoro creativo. (Ibiltaria)

Birziklatzearen bidezko musika sormena (Itinerante calle)



Igandea **13** Domingo - 19:30. Auditorio

MUGMUS LABORATEGIA

“¡Esku harriak-oteizaren (h)aria”

Dantza. Musika, eskultura eta bertsolaritza

Danza, Música, escultura y bertsolarismo



Gazte eta helduentzat / Público Joven y Adulto.

Larunbata **19** Sábado- 19:30. Auditorio

JAVIER SEGARRA

“¡Enradiado!”

Musika eta umorea irratian eginiko omenaldi bereziari

Música y humor en un particular homenaje a la radio



Gazte eta helduentzat / Público Joven y Adulto.

Igandea **20** domingo - 18:00. Auditorio

LAENANANARANJA

“Kontukantari”

Familiarentzako musika txotxongiloekin

Musical familiar con Títeres



Familiarentzat. Eskularak. Público familiar. En música

Alegria-Dulantzi



Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntzarekin
Colabora: Dpto Cultura. Diputación Foral de Alava

Kultur Etxean Sarrerak Salgai
Entradas a la Venta en la Casa de Cultura



ALEA 210

2019-10-11 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

PHOT.OK.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Mahats bilketaren inguruan, kezkak.
- 8 **Protagonista.** Unai Pascual ikerlaria.
- 12 **Iritzia.** Oihan Txabarri, 'Komunztadura'.
- 13 **Gutuna.** Eduardo Arriolabengoa, 'Krisi ekologikotik krisi sozioekologikora'.
- 14 **Sarean.** #Euskaltel.
- 15 **Iruditan.** Abere azoka zaharrena, Agurainen.
- 16 **Gizarte.** Eskalada arautu nahi du Gaubeak.
- 17 **Gizarte.** Segregazioari aurre egiteko neurriak eskatu dituzte.
- 18 **Gizarte.** "Opakutasuna" salatu du Salhaketak.
- 19 **Gizarte.** Leire Ruiz Olalla, Herri txikiak Bat-eko sustatzailea.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Haimar Arejita, Gatibu musika taldeko kidea.
- 24 **Kultura.** Antoni Muntadasen erakusketa, Artiumen.
- 25 **Kultura.** Emart egitasmoa, Artgia zentroan.
- 26 **Sexualitatea.** Emaize, 'Porno musikalizatua'.
- 27 **Literatura.** David Mangana, 'Oporretan bizi'.
- 30 **Agenda.**

Beltzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibxu Ugarte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Oihan Txabarri, David Mangana eta Emaize.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Ura nahasita dator ardoaren lurraldean

AEBetik baino, barrutik datoz mehatxuak Arabako Errrioxako familia upategientzat; Rioja jatorri izendapenaren baitan dagoen ezinegonari, azken urteetako mahats-bilketa urriak eta belaunaldi berrien errelebo falta gehitu zaizkio. Upategi handien zabalpena eta administrazioaren politikak ere kezka iturri dira.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**

Argazkiak: **PHOT.OK**

Goizeko bederatziak dira Gernikako Arbola plazan, eta tabernara sartu dira bi gizon; kanpoan, batera eta bestera, traktore txiki ugari ikusten dira, hutsik, eta langilez beteta furgoneta asko. Mahastietara doaz guztiak. Azken egunak dira eta lehenbailehen bildu behar da mahats beltza; zuria iragan astean jaso zuten gehienek, Villabuenan bederen.

"Larunbatean hasi zen mendemaren 'kolpe handia", esan dio kafea hartzera sartu den gizonak tabernan dagoen beste bati. Buruarekin baietz erantzun dio besteak, eta betondoa zimurtu du: "Aurten, tomateak ere ez datoz ondo", esan du, eta mahatsaren azidotasunaz eta PHaz kexatu da: "Limoiak dirudite". Hirugarren bat ere sartu da tabernara, eta hizketaldira batu da; hau ere ezkor: "Iazkoarekin alderatuta, %30 gutxiago ari dira jasotzen", esan die, eta burua makurtu du. Kafea amaitu eta plazara atera dira gizonak, bakoitza bere zereginetara.

Udazken honetako mahats-bilketa zalantzazko testuinguru batean dator Arabako Errioxan. Familia upategi txikien kasuan, jatorrizko izendapenaren inguruan zabalik dagoen eztabaida eta Logroñoeko zuzendaritzaren azken jokaldiak daude batetik; eta aldaketa klimatikoak azken urteetan izan duen eragina, eta belaunaldi berrien errelebo falta, bestetik. Ardogintzaren industriarentzat, berriz, kanpoko da mehatxua, AEBetako gobernuak Europako hainbat produkturen gainean –tartearen ardo– ezarriko dituen muga-zergak.

Ardogintzaren sektorean ziurgabetasuna ez da gauza berria, azken urteetako joera baizik, baina ezinegona gero eta hedatuagoa dago Arabako mahastizain txikien eta familia upategien artean, eta bide

Candido Besa familiaren mahastietan, Villabuenan, mahats beltza biltzen ari dira egunotan.





Gorka Alonsok 15 urte egin ditu mendeman.



Talde gaztea aritzen da Besa familiarekin.



Esti Besa mahastizaintzan.

"UPATEGI HANDIEK GU EZ JATEKO GUREA GOBERNATU BEHAR DUGU; HORI DA GURE SALBAZIOA"

ESTI BESA, MAHASTIZAINA

propioa egiteko beharraren sentsazioa areagotzen ari da hauen artean.

Ezinegon horren adibide dira goiz-goizetik mahatsa biltzen dabiltzan Candido Besa upategikoak. Zortzi hektarea eta erdi dituzte Villabuenan. Duela hiru urte bukatu zuten mahasti guztiak ekologikora aldatzeko prozesua, eta egun, soilik ardo ekologikoa egiten dute, beltza eta zuria.

Merkatua, Euskal Herrian

Mahatsak ziztu bizian biltzen dituen bitartean hitz egin du Esti Besak Rioja jatorrizko izendapenetik ateratzeari buruz: "Upategi handiek gu ez jateko, gurea gobernatu behar dugu; hor dago kokxa, hori da gure salbazioa". Halaber, Arabako upategi txiki gehienek salmenta zuzena egiten dutela kontuan hartuta, Euskal Herriko merkatuan Arabako Errioxako ardoen presentzia indartzeko beharra ere nabarmendu du. Besak dituen datuen arabera, Arabako Errioxako ardoaren %15 soilik saltzen da Euskal Herrian. "Guri Trumpek jartzen duena bost axola. Guk hemen saldu nahi dugu, Euskal Herrian, hemen merkatua dago. Sagardoa dena da hemengoa, txakolina dena da hemengoa...".

Saskia mahatsez bete du Besak, sorbaldaren gainean jartzeko laguntza eskatu du, eta badoa mahatsa atotian botatzera. Inguruan hamar bat lagun ditu, eta giro ona nagusi da mahastian.

Lorentxo Gorroñok irribarretsu azaldu duenez, urtero, gazte kuadrilla polita biltzen dute mendema egiteko, "punkien eta artisten taldea". Horieta batakuk beteranoak dira, Gorka Alonso bezala. Hamabost urte daramatza Besa upategiaren mahats-bilketan lan egiten. "Familiako semea ezagutzen nuen eta horregatik hasi nintzen, eta hemen oso-oso gustura nago; lan gogorra da baina giro ona dago. Gainera, hauek kristonak dira, gure alde begiratzen dute beti, ikusten baldin badute asko dagoela destajuan egiten dugu, eta gutxi baldin badago soldatan". Haren antzera lanean dagoen Jon Ferrerek Alonsoren iritzia berretsi du: "Lan fisikoa da baina gozamina, jendeak oporrak ere eskatzen ditu hona etortzeko (kar, kar). Nire plana urtero etortzea da".

Eguraldiaren aldaketa

Urtero. Mahatsa baldin badago. Izan ere, azken hamar urteetako joera ikusita zaila da ziurtatzea etorkizunean mahats nahikoa jaso ahal izango duten Arabako Errioxako upategiek eskaera asetzeko. "Azken urteak oso txarrak izan dira –esan du Besak-. Zazpi urtetik bost txarrak izan dira, 2015. urtean %15 gutxiago jaso genuen, 2016an erdia... Aurtan, berriz, harria izan dugu eta maiatzaren 8an izotza. Oso ona dago mahatsa, oso sanoak daude aleak baina nabaritzen da pisuan; 45.000 kilo hartzen baldin baditugu...".

Julen Gorroñok, amak esandakoaren haritik, ziurtatu du gurasoen lekukoa hartzeko orduan duen beldur nagusia eguraldiaren aldaketa dela: "Gehienbat horrekin nago kezkatuta, gurea bezalako familia upategi batean ez da bideragarria urtero mahatsa erosi behar izatea bezeroak mantentzeko". Gainera, ardo ekologikoa egiten dute, eta oso mahats ekologiko gutxi dago Araban, "20 upategi bakarrik".

Beldurak beldur, zorionekoak dira Candido Besa upategikoak, semeak eta haren lagun batek negoziarekin jarraitzea erabaki

dutelako. "Semea eta bere lagun bat etorri dira; ikusiko dugu zer erabaki hartzen dituzten, baina guk gure bidea egingo dugu, ez dugu beste horiek bezala izan nahi, ez ditugu hektarea gehiago behar eta ez dugu nekazaritza lurra galdu nahi. Harro gaude lur triste eta pobre honekin", esan du Gorroño.

Lurra, industriaren esku

Halere, haiek ez bezala, segidarik ez duten familia ugari daude Arabako Errioxan; eta Villabuenan, bereziki, gainbehera handia jazo da biztanlerian. Belaunaldi berrien faltarekin batera, gero eta baldintza administratibo eta burokratiko gehiago bete behar dituzte mahastizainek, eta nekazari askok amore eman dute. "2000. urtetik, makro-industriari bezala exijitzen digute eta jende asko nazkatzen hasi da". Horrenbestez, nekazaritza lurra jabe handien eskuetara pasatzen ari dira, pixkanaka: "90.000 euro balio du hektarea batek hemen, Arabako Errioxan. Rothschild & Vega Siciliak erosi berri dituzte 70 hektarea mahasti zahar; eta horiek ez dituzte 90.000 euro ordaindu... Zuk horren kontra zer egin dezakezu?".

Bistan da Arabako mahastizainek ardoaren industriaren aurrean bizirik atera nahi badute bide berriak urratu beharko dituztela. Besteak beste, hortik dator Arabako Mahastiak jatorrizko izendapena sortzeko orain dela bi urte ABRA Arabako Mahastizainen Elkarteak abiatu zuen prozesua. Candido Besa upategiko kideak horren parte izan dira, beste berrogeita hamar bat mahastizainekin batera. "Ikusi zutenean mugitzen hasten ginela hasi ziren haiek ere ipurdia mugitzen, eta orduan atera zuten zonaldeko ardoa, lurraldeko ardoa..., alukeriak, zirko bat".

Arabako upategien izaera eta lan egiteko modua errespetatuko dituen erabakirik ez dute espero Besako mahastizainek Rioja izendapenaren barruan. Izan ere, nabarmendu dutenez, irailean izan dute administrazioen politikaren azken adibidea, European Rioja Alavesa marka erregistratu baitu izendapenak. "Badakigu izena galduta dugula, eta, are gehiago, ez bakarrik Rioja Alavesa izena; entzun dugu Arabako Errioxako herri guztien izenak erregistratuta dauzkatela, ziurrenik ezingo genuke Vino de Lanciego edo Vino de Villabuena jarri, Riojak erregistratuta dituelako".

Hartara, mendema bukatzen dutenean bildu beharko dira berriro Arabako upategiak, etorkizuneko estrategiak adosteko eta finkatzeko.

Besaren mahastietan lana bizpahiru egunetan amaitzea espero dute. Orain, langileen taldea furgonetaren inguruan bildu da, hamaiketako egiteko. Kezkak eta artaziak alde batera utzi dituzte une batez, eta txantxetan dabilta. ■■■



Besako kuadrilla, hamaiketakoan.



Lorentxo Gorroño eta Candido Besa.

**"ARABAKO ERRIOXAKO
HERRI GUZTIEN IZENAK
ERREGISTRATUTA
DAUZKATELA ENTZUN
DUGU"**

LORENTXO GORROÑO, MAHASTIZAINA

	BAKARRIZKETAK	EKOIZPENAK
	ANTZEZLANAK	MANAGEMENT
	FAMILIARRAK	 www.ttipia.eus

Ttipia

"Larria baldin bada, eta hala da, neurriak exijitu behar ditugu"

UNAI PASCUAL BC3 KLIMA ALDAKETARAKO ZENTROKO IKERTZAILEA

Klima larrialdiari erantzuteko neurri eske, Fridays For Future gazte mugimenduak deituta, milaka lagun mobilizatu dira azken egunetan nazioarteko deialdiekin bat. "Bultzada bat" izan den arren, egoera iraultzeko beharrezko oinarriak jartzeko, ordea, "zailtasunak" daudela nabarmendu du Unai Pascualek.

Testua: **Anakoz Amenabar**

Nazio Batuen Erakundearen goi bilerak eta klimaren inguruko mobilizazioek zer arrasto utzi dute? Larrialdi klimatikoa serio hartu dute herrialdeek? Unai Pascual Ikerbasque eta Basque Centre for Climate Change zentroko ikerlaria (Gasteiz, 1973) Alea FM irratsaioan izan da, eta mahai gainean jarri ditu klima aldaketari aurre egiteko erronka nagusiak.

Azken egunetako bilkura eta mobilizazioek nolako arrastoa utzi dute?

Gazi-goza. Beste bultzada politiko bat eman zaio goi gailur hauekin, intentzio onak daude atzetik, baina oraindik ikusten dugu mundu mailan badaudela hainbat eragozpen klima aldaketaren arazoari benetan aurre egiteko ausardiarekin eta modu bizkor batean. Badaude adierazpen instituzionalak larrialdi klimatikoaren inguruan, baina oraindik hitzetatik ekintzetara pasatzeko zenbait koska pasa behar ditugu. Badirudi bidea egiten ari garela, baina ez dugu bukatzen bide horren beharrezko hasierako oinarriak jartzen. *Impasse* batean gaude. Oso gai korapilotsua da, konplexua, geoestrategia tartean...

Oztopo handia dira AEB, Txina, Brasil...

Badago gako geostrategiko bat, klima aldaketaren gainetik: herrialdeen arteko konpetentzia komertziala. Herrialde guztiek aintzat hartzen dute amildegiaren aurrean gaudela, pauso gutxi batzuk behar direla erortzeko, eta benetan modu azkar batean eragina izango duten neurriak martxan jarri behar direla. Diplomatikoki hainbat puntu ari dira jorratzen mundu mailan, eta enpresak eta hiriak ere gero eta paper handiago bat hartzen ari dira; uste dut paper hau azeleratu egingo dela, ekintza publiko eta pribatuaren arteko elkarlanetik, baina galdera da ekintza hauek ez ote diren beranduegi etorriko edo izan behar duten oinarri sendoa izango duten.

Orain gutxi arte "aldaketa klimatikoa" kontzeptua bera debatea zen, eta orain larrialdi klimatikoaz ari gara. Herritarrek kontzientzia hartu dute, ezta?

Bai, zientzialariok hamarkada luzeetan egon izan gara klima aldaketaz hitz egiten, ebidentziak mahai gainean jartzen, eta *lobby* oso garrantzitsuak egon dira klima aldaketaren inguruko diskurtsoa lokazten; hor denbora gehiegi galdu dugu. Klima aldaketa hemen dagoela, martxan dagoela eta atzeraezina den



Unai Pascualen ustez, mugikortasuna da inguruko herrialdeek duten erronka nagusietako bat. BC3

ebidentzia zientifikoa oso handia da egun, kontsentsu handia dago mundu mailako zientzialarion artean, eta horren isla da Pariseko 2015eko akordioa, hurrengo urtean martxan jarriko dena. Interes ekonomiko batzuk daude oraindik, halere, halako bultzada eraginkor bat emateko oztopo direnak. Larrialdi klimatikoaren adierazpenetik harago egin behar dugu salto, eta ikusten ari gara nola kalean ere jendea kontzientzia hartzen ari den, koordinatzen ari den eta mobilizatzen ari den; uste dut hor dagoela gakoa, goitik behera eragin behar da alde diplomatikoan, baina baita behetik gorako ere, beharrezkoak dira ekintza eta protestak agintariak mugiarazteko.

Larrialdi klimatiko honek utzitako daturik nabarmenduko zenuke?

Argi eduki behar dugu Pariseko akordioan aipatutakoa, gutxienez bi gradu ez gainditzeko ahalegina beharrezkoa dela, mundu mailako batez besteko beroketa efektua bi gradukoa baldin bada izugarritzko eragin negatiboak izango ditugulako. Eta bi gradutik behera ere ez du esan nahi eragin negatiboak izango ez ditugunik, egongo dira. Gradu bat dagoeneko berotu da

planeta, eta gradu eta erdiko langa hori oso urte gutxian pasako dugula ematen du. Eta hori ez da arazoa, sintoma baten adierazpen bat baizik; benetan gertatuko diren eta gertatzen ari diren efektuak muturrekoak dira: berotzarrak, euri oso gutxi egitea, edo neguan euri gehiegi egitea baina elurrik ez... Hainbat aldaketa handi gertatzen ari dira guri eragiten digutenak, hainbat sektoreri, baina batez ere hirugarren munduan bizi den populazioaren gehiengo bati eragiten diote modu bortitzagoan.

Adibide deigarriak ere badira, Yakartakoa kasu. Indonesiako hiriburu izateari utziko dio gutxinaka hondoratzen ari delako.

Bai, herrialdeek badakite hau badatorrela eta pixkat paradoxikoa da zenbat kostatzen zaigun guztion artean ados jartzea, jakinda bakoitzak sufritu egingo duela. Bakoitzak bi etxeko lan mota egin behar ditu. Batetik, klima krisiari eta areagotuko den honi egokitzeko politika oso sendoak jarri behar dituzte martxan, eta Yakartakoak adierazten du zer nolako esfortzuak egin behar diren eta egiten ari diren. Eta, bestetik, egin beharreko lan nagusia da CO2 isurketak modu azkar eta eraginkorrean murriztea; hori



Gasteizko Plaza Berrian egin zuten protesta. ALEA

"BADIRUDI BIDEA EGITEN ARI GARELA, BAINA EZ DUGU LORTZEN HASIERAKO OINARRIAK JARTZEA"

"JUSTIZIA KLIMATIKOA KONTUAN IZAN ETA PRESIOA EGIN BEHAR ZAIE ERANTZUKIZUN GEHIEN DUTENEI"

"KLIMA ALDAKETA HAU KRISI ASKOZ ERE SAKONAGO BATEN ERPIN BAT BAINO EZ DA"

egin ezean, mende bukaerarako eraginak oso negatiboak izango dira.

"Denok ez gara erantzule maila berean" aipatu duzu sare sozialetan.

Hori da agian niri gehien kezkatzen nauen erpinetako bat. Klima larrialdiaren diskurtsoarekin ematen du erantzukizuna guztiona dela modu berdinean, eta egia da denok egin ahal dugula zerbait, bakoitzak bere esparruan, baina klima aldaketa sortzen duen CO2 isurketen banaketa ez da berdina; badira askoz ere erantzukizun gehiago duten herrialdeak, eta horiek izan behar dute etxeko lan horiek ondo baino hobeto egin behar dituztenak. Justizia klimatikoa deitzen den kontzeptua kontuan izan behar dugu, eta presioa egin behar zaie erantzukizun gehien duten sektoreei.

Inguruko erakundeei dagokienez, zer politika dira zure ustez premiazkoenak?

Ikusten ari gara larrialdi klimatikoaren adierazpena abian dela, politikoki txertatuta dagoela. Orain, larrialdi sozial hori izanik, askoz ere baliabide gehiago jarri behar dituzte, eta administrazioan dauden sail guztiak lerrokatu behar dira; benetako larrialdia baldin bada, eta hala da, neurriak exijitu behar ditugu, eta gizartearen aurrean erantzun beharko dute. Herritarrek hori fiskalizatu eta kontuak eskatu behar dituztela uste dut, ezin delako hitz hutsetan bakarrik geratu. Mugikortasunarena kontuan izan beharreko arlo nagusietako bat, oraindik daukagun eredia ez baita batere osasuntsua; erregai fosilen menpe dago eredu hori. Seguraski hurrengo bi hamarkadatan elektrifikazio eredia ikusiko dugu, baina ezin ditugu gure itxaropen guztiak jarri bakarrik kotxe elektrikoetan, elektrizitate hori sortu, banatu eta hainbat eta hainbat milioi kotxe berri sortu behar direlako. Klima aldaketa hori baino askoz ere gehiago da, eta gure eguneroko kontsumoa ere kontuan hartu beharko genuke, ez bakarrik ekoizpena.

Klima aldaketari aurre egiteko, hortaz, iraultza arlo guztietara eramateari buruz ari gara, beraz?

Bai, arazo sistemikoa da berez. Klima aldaketa krisi askoz ere sakonago baten erpin bat baino ez da; krisi ekologiko zabalago bat, bioaniztasunaren galera globala, desertifikazioa... Mundu mailan garapenaren eredu nahiko ezegonkorak dauzkagu, oso ekitatiboa ez da, eta ondasunen banaketa ere ez da justua. Erpin horiek guztiak lotuta daude, eta uste dut irakurketa bateratua egin behar dela. ■■■

ESKAINTZA MARDUL-MARDULA



KIN

SAMSUNG GALAXY
A20e HAU

0€

HAUEK KONTRATATUZ

10 GB ESTRA / HIL

x

6€ / HIL



KON

SAMSUNG GALAXY
A70 HAU

0€



HAUEK KONTRATATUZ

20 GB ESTRA / HIL

x

12€ / HIL



**KONTRATATU HEMEN:
EUSKALTEL.EUS | DENDAK | 1717**



euskaltel

Euskaltelen Zuntzako bezero berrientzat edo bezero badiñentzat, baldin eta 10 GB-ko edo 20 GB-ko bonu gehigarri bat hilean eta 24 kuotatan ordaintzeko modalitatean smartphone bat kontratatzen badituzte, 2019/07/31 arte edo izakinak agortu arte balio du (10.000 ale), 24 hilabeteko deskontu eskusiboa edukiko duzu, 24 hilabeteko iraupen-konpromisoaren truke. Prezioetan sartuta daude BEZA eta kanon digitala. Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.eus

Babesle teknologikoa:



Komunztadura



OIHAN TXABARRI

PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA

G utxi barru alaba bat mundura ekarriko dugula eta, betaurreko moreak kakaz blai zituela ohartarazi zidan ohekideak aurrekoan. Jaiogabearentzako arropa eroatera joan ginen arratsalde batez; hilabeteko esperientzien *Top 10ean* jarriko ez nukeen ekintza, bai, baina atsekabe handirik gabe egindakoa. Etxera ailegatzean, baina, haserre zebilen emaztea, eta ez zen haurtxoentzako arroparen gama kromatiko murrizagatik. Hori beste zutabe baterako. "Konturatu al zara?" –esan zidan– "Denda guztietan niri begiratu didate, niri galdetu didate eta aholkuak niri eman dizkidate". Bada, bai. Egia zen. Bi sartu ginen dendetara, biok ginen bezero, baina bata andrea zen, tripaduna, ama. Bestea, gizona. Gustu estetiko zalantzarrikoa (horretan esango nuke asmatu zutela, kasualitatez) eta poltsa handiak eramatea besterik espero ez dena. Ordaintzea ere bai, akaso.

Badakit, ez begiratu horrela, ez dugula lortuko generoen arteko berdintasuna merkatalguneetako puerikultura sailetan. Baina etsaia ez dago bakarrik pijama arrosa eta urdin pastel gorrotagarriak diseinatzen dituzten multinazionalen baitan, gure baitan ere badago, ezkutatuta, gauza ñimiñoetan azaleratzeko prest. Adibide tonto bat. Egun batean galdetu zidan amak ea alabarentzako beharrezko guztia erositako *geneukan*, eta beste batean emazteari ea erositako *zeukan*. Komunztadura akats xalo bezain adierazgarria. Beste adibide bat. Teorian, guk geuk alabaren *gurasoak* izan nahi dugu, ez Ama (letra larriz) eta aita (letra xehez). Praktikan, erditze aurreko ikastaroko emaginaren hitzak dauzkat buruan dantzan: "Lehenengo urtean behintzat, aitengatik sentitzen dut, baina ama eta haurra bat eta bakarra dira, eta ez dago besterik". Eta hala, egunero, amaren zama astuntzen eta aitarena arintzen duten hamaika kontu. Hamaika komunztadura akats. Hurrengo batean kontatu beharko dizuet gramatika fintzen ari garen ala, sarritan gertatzen den legez, teoria hutsean geratu garen. ■

**ETSAIA GURE BAITAN
ERE BADAGO,
EZKUTATUTA, GAUZA
ÑIMIÑOETAN
AZALERATZEKO PREST**

Krisi ekologikotik krisi sozioekologikora

EDUARDO ARRIOLABENGOA ABASOLO

Oso interesgarria da Elhuyar aldizkarian krisialdi ekologikoaren inguruan irakurri dudan artikulua. Nazio Batuen IPBES erakundeak emandako datuak eta Unai Pascual eta Noelia Zafra BC3 Basque Centre for Climate Change teknikarien ekarpenak jaso dituzte bertan.

IPBESek emandako datuen arabera, milioi bat espezie galtzeko zorian daude; Lurraren azalaren %75 aldatu dugu gizakiok kolpeka, deforestazioaz, nekazaritza intentsiboaz, lurra urbanizatuz; 1900. urtetik hona espezieen %20 desagertu da eta beste %13 desager daitezke datozen urteotan. Bitartean, munduko populazioa bikoiztu egin da; barne-produktu globala, laukoiztu; nazioarteko merkataritza, hamar aldiz handitu. Hazkunde ekonomikoaren dogma albo batera utzi behar dela dio txostenak.

Unai Pascualen aburuz, bioaniztasunaren galeraren arazoaren erdigunean gizartea eta ekonomia daude: lurraren eta itsasoaren erabilera, natura-baliabideen zuzeneko esplotazioa, klima-aldaketa, kutsadura eta espezie inbaditzaileak. Baina, oinarrian, zeharkako eragileak daude: gizabanakoaren portaeren eta balioen aldaketa, kontsumo eta ekoizpen ereduak, nazioarteko



Klima larrialdiaz ohartarazteko protesta, Gasteizen. ALEA

merkataritza, joera demografikoa, berrikuntza teknologikoa eta gobernantza-eredua. Ikertzailearen iritziz, ez da bakarrik krisi ekologikoa aurrean duguna, baizik eta krisi sozioekologikoa: gizartea bera eta hark sortu eta mantentzen duen gobernantza-sistema dira krisiaren erantzule. Bizitzaren oinarri sozioekonomikoa berrasmatu behar dugu.

Beharrezkoak dira Greta Thunberg buru den *Fridays for Future* ekimena edota kalearen presioa; politikoen eta botere faktikoen aurrean behin eta berriz ekitea gobernantza-eredua alda dezagun. Baina premiazkoa da ere protestaren eta norbanakoaren arteko koherentzia izatea. Beste bizimodu ezberdin baterantz

PROTESTAREN ETA NORBANAKOAREN ARTEKO KOHERENTZIA IZATEA PREMIAZKOA DA

zuzendu behar dugu eguneroko bizitza, kontsumismotik zentzuzko kontsumora, gehiegikeriatik neurritasunera.

Nahitaezkoa da egunero dutzatzea uraren eskasia eta berotzeko xahutu behar den energia jakinda? Edo egunero jantziak aldatu eta garbitu, uraren eta energiaren kontsumoa handiagotuz eta uraren kutsadura gehituz? Plastikoen erabilera murriztu; zaborra gutxitu eta birziklatu; munduko beste muturrera oporretan joateari utzi... kontsumismotik aldentu; izatea lehenetsi, edukitzea edo itxura alboratuz; erabilera jabetza baino; norberaren loratze pertsonalari garrantzia eman; publikoa eta komunitatea defenditu, pribatizazioaren aldeko joerak baztertuz... adibide xume batzuk besterik ez dira, norberak, manifestazioetatik haratago, portaeren eta balioen aldaketaren bidetik jorrazteko aukerak. ■■■

BIDALI ZURE GUTUNA: erredakzioa@alea.eus

Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, herria, telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.

ALEAK eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.

SAREAN

@JUANMAGALLEG0

#Euskaltel

Telekomunikazioen alorrean aritzen den euskal enpresak garatu duen zuntz optikoa saltzeko asmoa agertu du Zegonak. Langileek kezka agertu dute, neurria enpresaren deskapitalizazioaren mesedean izango den beldur. Enpresaren jabe nagusiak argudiatu du salmenta horren bitartez hedatze prozesua finkatzeko eta zorrak murrizteko aukera izango dutela. Askok gogoratu dute, ordea, sare horren izaera estrategikoa, eta diru publikoaz lagunduta hedatu ahal izan dela. ■■■



ANDER ELORTONDO
@etxondokoa

Diru publikoz egina.... Zenbatean saldu zen? Zenbatean erosi zegonak? (Euskaltel erostean honen ibilgetuko balioa?) Etekin hauek %90 zerga beharko lukete gutxienez.



ZIORTZA ETXABE
@ZIOR13

Finantza erakunde nagusia -Kutxabanken bankarizazioa- edota telekomunikazioetan -Euskaltel- arduragabekeriaren ta politika negargarri baten fruitua dela argi dago. Zer salduko da hurrengo?



JOSU AMEZAGA
@FloresenaBarria

Herri baten arima kultura da. Kultura, gero eta gehiago, euskarri digitalean doa. Eta Euskaltel, gure digitalizazioaren gakoetako bat da. Nork saldu zion deabruari gure arima?



MIKEL IRIZAR
@mirizarintxaus

Azpiegitura estrategikoa zen Euskaltel etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko, eta galdu egin dugu. Euskal Kutxen aukera ere ez zen ondo baliatu. Horrela ez.



JOSU WALIÑO
@JWalino

Burujabetza teknologikoa garatzeko behar dugun oinarrizko azpiegitura salduko dute. Gaur ase, bihar gose.



TXEMA R. DE LA PISCINA
@txeramirez

EAJren "Euskal agenda" inoiz baino ageriago. Zertaz kexatzen zarete? Izan ere, hori zen. "Zegona" eta hau da "dagoena". Euskadi Murias desagertuko da..., baina 2023an Tourra Bilbotik aterako da!

 IRUDITAN



Lehen sektorearen aldeko apustu sendoa

Eguraldia lagun zuela, jende asko hurbildu zen asteartean Agurainera, Euskal Herriko azoka zaharrenak eskainitako askotariko ekimenekin gozatzena. Denera, 250 aberetik gora ikusteko aukera egon zen bertan; tartean, Euskal Herriko zaldi ikusgarriak, Enkarterriko astoak edo azpigorri arrazako ahuntzak. Baserriko sasoi produktu onenak ere jarri zituzten ekoizleek bisitarien eskuetan, hala nola, inguruko gazta, ogia edo ortuko barazkiak. Arabako Artzai gazta lehiaketari dagokionez, Ilarduiara joan zen berriro ere txapela; hain justu ere, La Leze gaztandegira.

Argazkia: Mikel Buruaga. ■■■



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**

E. U. LZ DE ARKAUTE URIBARRI GAUBEA
Gaubeako Udalak eskalada egiteko guneak arautuko ditu, kirol jarduera hori eta ondare naturalaren eta historikoaren babesa bateragarri egiteko. EH Bilduk azken udalbatzan aurkeztu duen mozioa onartu ostean, Udalak neurriak hartuko ditu San Martin de Valparaison eta San Pedroko haitzean aspaldi zabaldutako eskalada guneetan, eta Bachicabon kirolariak erabiltzen ari diren zonalde batean. Halaber, toki gehiago babestu beharra dagoen aztertuko du Udalak.

EH Bilduren mozioan gogoratu dutenez, bere garaian, San Martin de Valparaisoko eta San Pedro haitzaren inguruan arazoak egon ziren, "eskaladaren erregulazio faltagatik". EAEko Interes Berezikoko Ereku Naturala da Valparaiso, eta gainera, X. mendeko nekropoliaren eta ermitaren aztarnak daude bertan. San Pedron, berriz, Burdin Aroko muino harresituta dago, eta ermita eta nekropoli bat ere.


Udalak gutxienezko muga batzuk ezarri zituen aspaldi, batik batik autoak sartzeko debekua ezarri, eta orain, asmoa da erregulazio hori "berrikustea". Halaber, ondare historikoa nabarmentzeko informazio-taulak eta seinaleak jarriko dira. Ildo beretik, Bachicabo bezalako gune berrietan, azken urteetan eskalada egiteko zabaldu diren bide berrien erabilera arautuko dute, "kirolaren praktika herrietako jendearen bizimoduarekin eta ondarearen babesarekin bateragarri egiteko".

Autokarabanak

Bestalde, astebururo autokarabanen edo furgonetan Gaubea hurbiltzen diren eskalatzaileen eta mendizaleen gaua emateko beharra asetzeko, aparkatzeko

Eskalada arautu nahi du Gaubeak

Autokarabana eta furgonetan gune bat ere egokituko dute, Uribarri Gaubean; deposituak husteko eta betetzeko zonalde bat izango du.



Eskalatzaileak San Martin de Valparaison, Uribarri Gaubea ondoan. PHOT.OK

gune bat egokituko du Udalak Uribarri Gaubean, kiroldegiaren inguruan. Udalbatzak onarturiko EH Bilduren mozioaren arabera, ibilgailuen deposituak husteko eta betetzeko zonalde bat izango du gune berriak, baita elektrizitatea eta komunak ere. Aztertze-

ke dago eremua libre erabili ahal izango duten bisitariak edo "kuota txiki" bat ordaindu beharko duten. Orain arte, Uribarri Gaubea gaua pasatzera hurbildu diren autokarabanak igerilekua zerbitsuak erabiltzeko aukera zuten bakarrik.



Oiongo Ramiro de Maeztu eskolako ekitaldi bat. RAMIRO DE MAEZTU

Segregazioaz hitz egiteko unea

Oionen gaiari buruzko eztabaida "modu erreal eta eraginkorren" egiteko galdegin dute hezkuntza arloko eragileek. Udaletxearen aurrean elkarretaratzeak hasi dituzte, agintarien inplikazioa eskatzeko.

MIKEL BURUAGA OION

Oionen bizi duten eskola-segregazioari buruzko eztabaida "modu erreal eta eraginkor batean ematen ez den bitartean", udalbatzara egiten den bakoitzean elkarretaratzeak egingo ditu udaletxearen aurrean Oiongo Eskola Publikoaren Aldeko Plataformak, STEILAS eta CCOO sindikatuekin batera.

Azken urteotan egon diren Gobernuek eta Hezkuntza Sailek "zerbitzu publikoen pribatizazioan eta murrizketetan oinarritutako hezkuntza-politikak" eraman dituztela salatu dute. "Hezkuntza sistema dual desorekatua (publiko eta pribatu-itundua) egonkortu" eta, ondorioz, EAEko auzo eta

herri askotako hezkuntza-politikan "eskola segregazioa ohiko joera" bihurtu dela salatu dute eragileek. Horren adibidetzat jarri dute Oion, orain dela urte batzuk "hezkuntza sare publikoaren eta itunpekoaren artean gertatzen ari den desoreka ikaragarria" azpimarratuz.

Azaldu dutenez, sare publikoa jasotzen ari da gehienbat "zailta-

SARE PUBLIKOAREN ETA ITUNPEKOAREN ARTEKO "DESOREKA IKARAGARRIA" AIPATU DUTE ERAGILEEK

sun handienak dituen populazioa", batez ere jatorri atzerritarra duten ikasleak.

Horren ondorioz, bertako maila ertain eta altuko familia askoren inguruko erkidegoko ikastetxetara edota herriko ikastetxe pribatu-itundura "ihes egitea" eragin du, eta ikastetxe publikoaren "eskola-segregazioa" agerian utzi du, Eskola Publikoaren Aldeko Plataformaren eta sindikatuen arabera.

Desoreka

Uztailean martxan jarri zen Oiongo Eskola Publikoaren Aldeko Plataforma. Orduan, Ramiro de Maeztu ikastetxe publikoko 110 familiak herrian "eskolatze desoreka handia" zegoela salatu eta segregazioaren kontrako dinamika berria piztu zuten. Horrekin batera, "zonaldean dagoen irakaslegoaren egonkortasun falta-gatik" egoera are larriagoa dela ohartarazi zuten.

Duela hiru hilabete, Oiongo Udalarari eta Arabako Errioxako Kuadrillari idatzi bat helarazi zioten Ramiro de Maeztu ikastetxe-konfamiliek, haien atxikimendua eskatuz. Era berean, arazoari aurre egiteko instituzioen arteko mahai bat osatzea galdegin zuten, "egoeraren azterketa sakona egiteko" eta egutegi bat prestatzeko "neurri zehatzekin".

Oiongo Udaleko plenoak eztabaida atzeratzea erabaki du, plataformaren esanetan, "alderdi politiko guztien oniritziarekin". Honen aurrean, eskakizun argi bat plazaratu dute: "Heldu diezaieten aurreko gai horiei eta ez ditzatela aparkaturik utzi".

Lehenengo elkarretaratzea asteazkenean egin dute Oiongo Plaza Nagusian, eta bertan arazoari aurre egiteko irtenbideak eskatu dituzte.



Gasteizen salatu dute Arabako espetxearen egoera. ALEA

"Opakutasuna" salatu du Salhaketa elkarteak

Aurten Zaballako espetxean izan den bosgarren heriotza salatu dute Gasteizen. Egoera konpontzeko, neurri zehatzak eskatu dituzte.

MIKEL BURUAGA GASTEIZ

Oraingoan A.F.N izan da, 50 urte inguruko donostiarra, Arabako makroespetxearen hirugarren moduloan bizitza galdu duena.

Salhaketa elkarteko kide Cesar Manzanos eta Adrian Donnay atsekabe agertu dira prentsaurrean: "Funtzionarioen kolektibo baten bitartez izan dugu heriotza honen berri, urteko bosgarrena". Heriotza irailaren 21ean jazo zen, baina "sei egun berandura arte ez zen publiko egin", salatu dute.

"Informazio eza eta opakutasuna" gogor kritikatu dituzte. Izan ere, Manzanosen hitzetan, "Zaballako espetxea gezurretan ari da", espetxeko zuzendaritzak ez baititu elkarteak muturreko egoera hauetaz informatzen. "Kasu hau ez da salbuespena izan", azaldu du. Salhaketak lortu duen informazioa eskasa da, hala ere.

A.F.N donostiarra zela eta bere espetxea Zaballa ez zela badakite. "Epaitegira joateko mugitu zuten", azaldu du elkarteak. Heriotzaren arrazoia, betiere espetxeko zuzendari eta funtzionarioen arabera, gaindosia zen. Informazio horiek "kontrastatzeko daturik ez" dituztela ere aipatu dute.

Beste hainbat kasu

Norabide berdinean kokatu dute beste kasu bat: bere buruaz beste eginen saiatu zen beste preso bat. Ospitalera eraman zuten eta, horren ostean, bere osasunaren inguruko informaziorik ez dute izan Zaballan lan egiten duten elkarteek. Bestetik, 2019ko urtarilaren 17an, 28 urte zituen J.A. gazte bizkaitarraren hilotza topatu zuten kideek, gauez. Otsailean, beste gazte batek bizitza galdu zuen Zaballako espetxean.

Maderas de Llodion "salaketa faltsuak" baliatu dituzte hiru langile kaleratzeko

ERREDAKZIOA LAUDIO

Maderas de Llodio enpresan hiru langile kaleratu dituztela jakinarazi dute sindikatuek, eta horretarako enpresak "salaketa faltsuak" baliatu dituela salatu dute.

Kaleratzeak arbuizatzeo, enpresa batzordeak mobilizazioei ekin die. Astelehenean egin dute bi orduko lehen elkarretaratzea, enpresaren atarian, eta iragarri dute hurrengo astelehenean bigarren bat egingo dutela. Bertan sindikatuek hiru langileak berroztatzeko eskatu dute.

Ohar baten bitartez, LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek osatutako enpresa batzordeak azaldu duenaren arabera, "lan errendimenduaren beharakada leporatuta" eman ziren kaleratzeak joan den irailaren 27an.

Iragan astean bi batzar egin eta gero, batzordeak eta plantillak kaleratutako lankide hauek behar berriz onar ditzala eskatu diote enpresari, "gezurretan oinarritutako kaleratzerik" onartuko ez dutela ohartaraziz.

Eskari gutxiago

Urtebete igaro da Garnica taldeak Maderas de Llodio erosi zuenetik. Sindikatuen ustez, denbora epe laburrean ikusi dute "zein gutxi inporta zaizkion pertsonak enpresa honi". Enpresan eskarien falta dagoela azaldu dute sindikatuek, eta langile batzordeak eta zuzendaritzak iraileko ostiraletan lanik ez egitea adostu zuten. Lan bolumenaren jaitsiera egotzi diote, hain zuzen, hiru langile horien kaleratzea.

"Urtean zehar oso hutsik ikusten ditugu herriak"

LEIRE RUIZ-OLALLA HERRI TXIKIAK BAT-EKO SUSTATZAILEA

Herri Txikien Eguna antolatu dute larunbaterako, Argantzonen. Herriek dituzten gabeziak aldarrikatu nahi dituzte, egun osoko egitarauan.

ESTI LANA O GASTEIZ

Arabako herri txikitako gabeziez eta populazioaren zahartzeaz kezkatuta, irtenbide bila hasi eta asanblada bat sortu dute hainbat herri txikitako gazteek: Herri Txikiak Bat. Leire Ruiz-Olalla (Hunan, Txina, 1997) proiektuaren sustatzaileetako bat da, eta bidea erraztuko duen aurrekari bat bezala ikusten du larunbateko jaialdia.

Zein herri osatzen dute orain arte Herri Txikiak Bat proiektua?

Hasieran bost ziren: Buradon Gatzaga, Argantzón, Bernedo, Urizaharra eta Zanbrana. Orain Trebiñu, Korres eta Markinez ere batu dira.

Zergatik erabaki zenuten herri horietako gazteak elkartzea?

Herriak gero eta hustuago ikusten ditugulako. Herri handietara edo hirietara joateko joera dago, eta gazteen arteko harremana galtzen ari da. Hori berreskuratu eta bultzatu nahi dugu. Aurretik bazegoen

proiektu batetik abiatu ginen. Hau da, aspaldiko ideia bat hartu eta aurrera eramateko pausoa eman genuen. Astiro-astiro joan gara zabaltzen proposamena, eta orain arteko bilakaera izugarria izan da.

Zein da herri txikien errealitatea?

Ni Buradon Gatzagako naiz, eta nire kasuan urtean zehar herria nahiko hutsik dago. Asteburuetan edo udan jendea badirudi gehiago animatzen dela, eta giro ona dago, baina orokorrean oso jende gutxi etortzen da. Antzekoa gertatzen da beste herrietan.

Zer gabezia topatu dituzue?

Baliabideen aldetik, bereziki, garrarioa. Herritik atera nahi duzun bakoitzean, bereziki beharrezkoa duzunean, onena kotxea hartzea duzu. Zure kabuz.

Euskara ardatza da egitasmo honetan.

Zalantzarik gabe. Guretzat arlo garrantzitsuenetarikoa bat da, eta sustatu nahi dugu. Gure arbasoek ez zuten aukera hori izan, garaia zela eta; guk badugu, eta sustatu eta indartu behar dugu.

Zer prestatu duzue larunbaterako?

Jaiegun normal bat bezala izango da. Hainbat ekintza antolatu ditugu; besteak beste, umeen txokoa, bertso saioa, Herri Olinpiadak eta kontzertuak. 12:00etan hasi eta gauera arte luzatuko da. Gero, nahi duenak gehiago luza dezake. Asmoa herri txikitako gazteak etortzea da, harreman hori sendotzen hasteko, baina beste lekuetako jendeari ere luzatzen diegu deia.

Eta jaialdiaren ostean, zer?

Etekin ekonomikoak alde batera utziz, gure helburu nagusia, esan bezala, Arabako herri txikitako gazteen arteko harremana indartzea da. Jaialdi honekin aurrekari bat finkatu nahi dugu, ondoren etorriko denari bidea egiten hasteko. ■



Herri Txikien Eguna antolatu dute datorren larunbaterako, Argantzonen. **ESTI LANA O**.

ESANAK



NATXO URKIXO ORUETA
LAUDIOKO ALKATE OHIA
Iturria: Aiaraldea

"Herritarrak ezin dira konformatu lau urtean behin botoa ematearekin"



JIMENA RUIZ DE LANDA
ARKITEKTOA
Iturria: Radio Vitoria

"Renfeko eraikina ez da ukiezina; bere eraisketa aztertu daiteke"



JUAN UGARTE
SEA-KO IDAZKARI NAGUSIA
Iturria: Radio Vitoria

"Epe laburrera begira, ez da atzerapen ekonomikorik antzematen"

ZENBAKITAN

Euroak

UAGA Arabako nekazarien sindikatuak erabaki berri du erremolatxa tona ez duela 30 euro baino gutxiagoan salduko, eta modu horretan, AB Azucarera Iberia enpresak eskaini dien 26 euroko prezioa arbuia du. Nekazarien esanetan, "ezin da erremolatxa prezio horretan landatu", eta horrenbestez, Azucarerarekin hurrengo bi kanpainenetako laborea kontratatzeari uko egin diote. Erremolatxaren sektoreak laborearen aldeko apustua berretsi du, baina nekazariarentzat "bideragarria" den prezio bat exijitu du: "Prezioak laborearen landaketak ekartzen dituen gastuak eta arrazoizko etekina bete behar ditu".

30

3

Hegaldiak

Ryanairrek Gasteiz eta Malaga arteko hegaldi berria jarriko du martxan datorren urtean; Forondako aireportua Teneriferekin lotzen zuena ordezkatu du bide berri horrek. Konpainiak jakinarazi du astean hiru hegaldi jarriko dituela eskura apiriletik; zehazteke du oraindik zer egunetan eta orduetan izango diren hegaldi horiek. Diputazioarekin duen hitzarmenari esker, Milan, Sevilla, Kolonia eta Palmara ere irtengo dira hegaldiak Forondatik.

278

Edukiontzia

Arabako Diputazioak Aiarako Kuadrillari 197.700 euroko diru-laguntza emango dio, edukiontzi horiak eskuratu ditzan. Dirulaguntzari esker, 278 edukiontzi eskuratu ahal izango ditu Kuadrillak, eta gehienak edukiera handikoak izango dira (3.700 litroko edukiera). Partida ekonomikoa hainbat ekitalditan banatuko dute eta, horrela, toki erakundeak edukiontziak ordezkatu eta gehiago eskuratu ahal izango ditu 2023. urtera bitartean.

Ez dute galdetuko Salburua eta Zabalgana lotzeko ereduari buruz

"Gasteizko auzo berriak eta Erdialdea lotzeko: tranbiaren azpiegitura luzatu ala Autobus Elektriko Adimendua (AED) ezarri?" Gaiaren inguruan EH Bilduk proposatutako herri galdeketa egiteari uko egin dio Gasteizko udalbatzak. Elkarrekin taldearen bablesa izan arren, EAJ eta PSEren ezezkoak eta PPren abstentzioak atea itxi diote kontsultari.



Ez da galdeketerik izango Salburua eta Zabalgana lotzeko ereduaren inguruan. ALEA



Bankuaren inguruko obrak. ALEA

Hezur hondarrak topatu dituzte Espainiako Bankuaren lanetan

Irailean hasi ziren Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroaren ingurua hobetzeko lanak, eta egunotan San Frantzisko komentuari zati bat agerian geratu da, eta hezur batzuk ere agertu dira han. Zehazki, aurkitutako portikoaren hondakinak XVI. mende amaiera-koak eta gizaki hezurak XIII. mendekoak izan daitezkeela uste dute ikertzaileek.

Euskara sustatzeko baliabideen katalogoa egin du Diputazioak

Euskara gizarte eta ekonomia arloetan sustatzeko baliabide katalogo bat aurkeztu du Diputazioak. Argitalpenean biltzen dira lor daitezkeen bi kalitate egiaztagirien azalpenak, zein erakundek ematen dituen eta zein den eskaera aurkezteko epea. Antzekoa gertatzen da administrazioek eta Merkataritza Ganberak enpresen esku jarritako diru-laguntzekin.

Ribabellosako gurasoen eskaera aintzat hartu du Hezkuntza sailak

Ribabellosatik Langraiz Okara joaten den autobus-linearen birmoldaketa atzera bota du Jaurlaritzako Hezkuntza sailak. Asteazkenetik, Ribabellosako autobusa, ohi bezala, zuzenean doa institutura; Melledestik ateratzen den autobusak Manzanosko eta Antezanako ikasleak jasotzen ditu, eta taxi batek Estavilloko eta Añastroko ikasleak hartzen ditu.



Lizarralde soinua  zerbitzu erakunde

TXALAPARTA S.L.

Audio Profesionala, Megafonia

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
 945 22 69 77
 GASTEIZ

"Abestiak sortzean gorputzak esaten diguna egiten dugu"

HAIMAR AREJITA GATIBU MUSIKA TALDEKO GITARRA-JOLEA

MIRIAN BITERI GASTEIZ

Gasteizen bueltan da Gernikako taldea, pasa den abenduan *Azken indioak* lana Jimmy Jazz aretoan aurkeztu ostean. Toki bera aukeratu dute ostiral gauean eskainiko duten kontzerturako.

Zer nolako kontzertua eskainiko duzue oraingoan? Antzik izango al du iazkoarekin?

Errepertorioari dagokionez aldaketak egingo ditugu. Iaz *Azken Indioak* diskoaren aurkezpena egin genuen bertan, eta orain beste kontzertu mota bat eskainiko dugu, abesti zaharrak gehituz. Gure ia 20 urteko ibilbidearen errepaso egingo dugu.

Nola planifikatzen dituzue kontzertuak?

Nahiko argi edukitzen dugu zer eskaini behar dugun eta jendeak zer espero duen gure kontzertu baten aurrean. Errepertorio nahiko zabala dugu, zortzi disko dira eta abesti asko, badaukagu non aukeratu. Denen gustukoa inoiz ez da izaten; gu saiatzen gara abesti ezagunenak direnak beti errespetatzen eta gero,



Haimar Arejita. GATIBU

entseguen aurretik, lokalean aukeratzen dugu gainerako errepertorioa. Bakoitzak bere proposamenak botatzen ditu eta adostu egiten dugu; egia esan, ez dago oso meditatuta, gure sentsazioaren arabera izaten da aukeraketa.

Inprobisazioak badu tokirik kontzertu baten erdian?

Ez. Ez dugu publikoaren eskakizunak betetzeko ohiturarik, bestela kontzertua horretarako bakarrik eman beharko genukeelako.

Zer duzue nahiago, areto itxi batean edo herri bateko plazan jotzea?

Normalean, areto itxiak nahiago izaten ditugu, horretarako zehazki prestatuta daudelako; Euskal Herrian, gainera, zorionez badauzkagu mordotxo bat eta horrek zure lana hobeto egiteko aukera ematen dizu. Adibidez, soinu froga bat jende eta presio barik egin dezakezu, eta hori oso garrantzitsua da.

'Azken Indioak' lanaren promozioarekin, agertokiz agertoki ibili zarete urte osoan. Birak ba al du itxiera datarik?

Durangoko azokan kaleratu genuen eta, hortaz, urtebete, behintzat, egingo dugu diskoa aurkezten.

Pozik diskoak izandako harrerarekin? Azken lanekin alderatuta sonoritate aldetik desberdina da, ezta?

Ni neu, behintzat, oso pozik. Asko gustatu zitzaigun diskoaren emaitza, eta gero, jendeak lanarekin izan duen harrera oso ona izan dela uste dugu, kontuan izanda taldearen zortzigarren diskoa izan dela eta ez dela erraza jendea asetzea eta interesa mantentzea. Kontzertuetan kantuak abestu egiten dituzte;



Gasteizko Jimmy Jazz aretoan joko du ostiralean Gatibu talde bizkaitarrak. GATIBU

beraz, hor dago seinalea, kantuak norbaitengana iritsi direla. Azken helburua hori bera denez, oso pozik gaude. **Hogei urte pasa ostean, gailurrean jarraitzen duzue askotariko adinetako jendea kontzertuetan batuz. Lan batetik bestera berrikuntzak sartzea izan daiteke taldearen arrakastaren gakoa?**

Bai. Azkenean, ezin zara gelditu beti gauza berdina egiten; geratu zaitezke, baina nik neuk, behintzat, abestiak sortzerakoan ez dut errepikatu nahi. Hori da egunero arropa berdinarekin joatea bezala; joan zaitezke, baina aldatzen baldin baduzu, hobeto. Egunero ez gara pertsona berdinak, eta zure musikan hori igarri egiten da; zure izaera adierazten baduzu gauza ezberdinak irtetzen dira, eta guk horretan ez daukagu inongo arazorik. Batzuetan ez dakizu asmatuko duzun edo ez, ez dugulako merkaturatzen. Momentuko gustuak asetzen ditugu, gorputzak eskatzen diguna egiten dugu; beraz, berrikuntza hori oso modu naturalean egiten dugu beharrian bati erantzunez.

"EUSKAL HERRITIK KANPORA MUGITU NAHI DUGU, EUROPA ETA, BEREZIKI, ESPAINIA MAILAN"

Dena dela, abesti batek zerbait kontatu behar du, mamia izan behar du.

Birarekin batera, zer nolako asmoak dituzue epe laburrera begira?

Helburua da 2020. urtera arte disko honekin jarraitzea. Eta datorren urtean talde moduan 20 urte betetzen ditugunez, zerbait berezia ospatzea; baina zehazteke dago oraindik hori, pentsatzen gabiltza. Horrez gain, Euskal Herriatik kanpo ere mugitu nahi dugu; Europara joatea gustatuko litzaiguke, eta baita Espainia mailan ere kontzertuak eskaintzea. Gure esparru naturala Euskal Herria bada ere, gaur egun estatu mailan beste egoera bat dago eta jendeak beste hizkuntza batean abesten duten taldeak ondo hartzen dituela uste dut. Beraz, horren aldeko apustua

egin behar da. Espainiako estatu barruan oso pozik ez gauden arren eta beste marko politiko bat edukitzea nahiko bagenu ere, horrek ez du esan nahi Espainian jo behar ez dugunik. Jendeak euskara ez badu ulertzen ere, badu euskararekiko ikuspuntu zabalagoa, agian orain dela 30 urte ez zegoena. Begiratu besterik ez da egin behar Berri Txarrak eta beste hainbat taldek kanpoan jotzen dutenean duten harrera.

Horrekin lotuta, dagoeneko badituzue hainbat kontzertu hitzartuta...

Hala da. Kataluniara goaz laister. Katalunia beti izan da gure anaia moduko beste herrialde bat, eta bertan presentzia gehiago izaten saiatzen ari gara. Askotan izan gara, eta bagabiltza gure arteko harremana josten.

Amaitu aurretik, dagoeneko hurrengo diskoan pentsatzen hasita dago Gatibu?

Ez. Oraindik ez da urtebete pasa azkena kaleratu genuenetik eta oso goiz da. Gure erritmoa beste bat da, motelagoa. ■■■

Muntadasen gakoetatik bidea

Antoni Muntadas artista katalanaren obraren inguruan Euskal Herrian izan den lehenengo erakusketa aurkeztu du Artium museoak; atzera begirakoa baino, ibilbidean giltza izan diren kontzeptuak bildu ditu.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Beldurraren eraikuntza, globalizazioa, harreman publiko-pribatuak, kapitalismo transnazonala... Gako horiek eta gehiagok markatu dute Antoni Muntadasen (Bartzelona, 1942) ibilbidea 1970. hamarkadaz geroztik, eta horiek dira egunotan Artiumen ikus daitekeen erakusketa gidatuko dutenak. Artista katalanaren obraren inguruko lehenengo bilduma da *Elkarrekiko loturak, interconexiones, interconessioni*, urtarrilaren 12ra arte Gasteizen ikusi ahal izango dena.

Erakusketaren izenburuaren jatorrian Mark Wigleyren esaldi bat dago. Hark horrela definitzen du artista: "Hiri bat

da, pertsona bat baino gehiago, elkartruckerako eremu-sare bat, luzaro abian dagoena, norbanako bat baino gehiago". Hala irudikatu dute Muntadas erakusketako komisario Cecilia Guidak eta Fito Rodriguezek, eta hari horri jarraiki osatu dute erakusketa. "Muntadasek azaleratzen dituen barne mekanismo eta lotura-mekanismoek konpromisoa eta subjektibitate kritiko bat eskatzen dute, publiko parte-

70. HAMARKADATIK HASITA, MUNTADASEN IKUSPEGI ANALITIKO ETA ZEHARREKOA ERAKUSTEN DU

hartzaille bat, eta kontraesanak ezagutzeko interesa duena", azaldu du Rodriguezek.

Muntadasek berak gogoratu du erakusketak ez duela atzera begirako bat eskaini nahi, begirada analitiko eta zeharkako bat baizik.

"Erakusketan nire diziplina arteko ikerketan behin eta berriz errepikatzen diren loturak hautatu dituzte Fitok eta Claudiak, eta uste dut oso aukeraketa egokia egin dutela", aipatu du Muntadasek. Galdera sorta batek proiektu artistikoaren metodologiari eta artearen beraren funtzionamenduari buruz pentsarazten du ikuslea, eta bidean aurrera eginez artistaren lehen proposamenak aurkituko ditu bisitariak. ■



Urtarrilaren 20ra arte ikusi ahal izango da Antoni Muntadasen obraren inguruko erakusketa Artiumen. ALEA

Emart, emakumeak zentrorra

Hiru emakume gazte arabarren proiektuak aukeratuko ditu Artgiak; halaber, hiru formakuntza saio eskainiko ditu, artisten ekonomia, komunikazioa eta proiektuen aurkezpenak erdigunean jarriz.

ERREDAKZIOA

"Arabako emakume artisten lana hauspotzea eta mahai-gaineratzea da gure helburua proiektuari heldu genionetik, eta horretan ari gara". Horrela azaldu du Artgiako kide Ludi Puertasek Emart deialdiaren funtsa, Gasteizko Udalaren laguntzarekin prestatutako egitasmoa. Horretan, hiru proiektu aukeratuko dituzte, eta horiek jasotzeko epea urriaren 26tik azaroaren 10era bitartean egongo da zabalik.

Sari ekonomikoa eta bi erakusketa biltzen ditu Emartek: kolektiboa eta bakarkakoa. Halaber, hiru formakuntza saio eskainiko dituzte, artisten ekonomia, komunikazioa eta proiektuen aurkezpenen inguruak erdigunean jarriz.

Emakume gazteak

Arte bisualen, soinudun arteen eta arte eszenikoen barruan kokatzen dute Emart, "Arabako emakumeen sorkuntza gaztea sustatzeko". Emakume artista arabarrek sortutako artelaren ekoizpena, erakusketa eta hedapena sustatuko ditu deialdiak. Puertasek azaldu du helburua: "Herrialdean garabidean diren emakume artistak kultura ekosistema baten erdigunean jartzea".

Era berean, elkarrizketa eta elkarlanaren bidez, sinergiak sortuko direla esan du



Almudena Maeso artista eta Ludi Puertas Artgiako kidea. ARTGIA

"ARABAN EMAKUMEEN SORKUNTZA GAZTEA SUSTATZEKO HELBURUA DUGU"

LUDI PUERTAS, ARTGIAKO KIDEA

Puertasek, eta, horrela, sareak eraiki ahal izango dira askotariko diziplinak jorratzen dituzten artista arabarren artean.

Bigarren aldia da deialdia abiatzen dutela, eta lehen edizioan ikasitakoa praktikan jarri dute. "Hainbat izan ziren artistek aipatu zizkiguten gabeziak", eta horregatik, aurtengo edizioan, artisten

ekonomiaren kudeaketa, *on line* eta *off line* komunikazioa edota proiektuen kontzeptualizazioak eta aurkezpenak ere landuko dituzte.

Hartara, formazio saioak antolatu dituzte proiektuaren barruan. Almudena Maeso artistak oso argi dauka: "Unibertsitatean ez dira apenas horrelako gaiak jorratzen; ez BEZa, ez PFEZak... lanean hasi eta bai ala bai ezagutu behar direnak". Horregatik, urriaren 24an, 25ean eta 26an hiru formakuntza saio hauek eskainiko dituzte ARTgian, "praktikoak eta behar-beharrezkoak diren gauzak nola egin irakasteko". ■

Porno musikalizatua

SEXUALITATEA



EMAIZE

Gazteek pornografiarekin lehen harremana gero eta lehenago dutela dioten berriak astero ditugu entzungai eta errealtate honek kezka eragiten digu guraso, hezitzaile, sexologo eta beste eragile askori. Honi aurre egiteko era ezberdinak ditugu: ostrukarena egin, -nire seme-alabari sakelakorik ez diodanez erosi, ez duela nola ikusi pentsatuz-, sexuen heziketaren ardura ikastetxekoen esku utziz eta ikastetxean familiaren ardura dela pentsatuz... Eta pilota alde batetik bestera pasatzen dugun bitartean, nahita zein nahigabe, hitzak, irudiak eta estereotipo sexistak iristen joango zaizkie pornografiaren bidez. Pornografia komertzialaz ari gara, beste mota batzuk ez dira hain erraz eskuratzen.

Pornografiaren eraginez kontziente gaiari heltzen diogun horietan ere, bideo pornoak ditugu buruan eta horiek saihestu edo horien aurrean zer egin landuko dugu gazteekin. Baina badago ahaztu egiten zaigun zerbaite: musika.

Musika gazteen bizitzan garrantzi handikoa da eta azken urteotan badira pornografiaren musikalizazioa egiten duten zenbait artista. Guk asmatutako kontzeptu honek pornografiaren estereotipo berberak transmititzen dituen musika barne hartzen du. Emakumezkoen gorputzaren erabilera, bere desioa asetzeko



UNSPASH

emakumezkoak erabiltzen dituen enpatia gabeko gizona, sarketa hutsean oinarritutako harremanak, dirua arakastaren seinale, emakumearen desio eza gizonaren asetzeko ez bada, emakumezkoen arteko kompetitibitate ezkorra, larrua jotzeaz besterik pentsatzen ez duten gizonak...

Pornografia komertzialean eta zenbait musika bideotan ikus/entzun dezakeguna antzekoa da eta landu beharreko eremu garrantzitsua dagoelaz ohartzea merezi du. Gure seme-alabek ez dute gure ondoan pornoa jarriko, baina musika bideoak ez al

PORNOGRAFIAREN MUSIKALIZAZIOA EGITEN DUTEN ZENBAIT ARTISTA SORTU DIRA AZKEN URTEOTAN

dituzte ikusten? Badakigu zer ikusten duten edo, musika denez, ez diogu atentziorik jartzen?

Ez dugu esango zenbait musika entzun eta ikustea debekatu behar denik, ez gara zentsuraren aldekoak. Bestelako gaietan bezala, pentsamendu kritikoa garatzen lagundu, sexismoa zer den erakutsi, bere gorputza eta burua baloratzen, onartzen eta errespetatzen lagundu eta beste pertsonak errespetatzen ikasi, bere eta besteon desioak kontuan izateko gaitasuna garatu, pertsonen arteko berdintasun harremana sortu... Hau da, sexuen heziketa egin beharko dugu: etxean, ikastetxean, zuzenean, zeharka eta profesionalen laguntzaz, hau baita bizitarako tresnarik eraginkorrena. ■■■

emaize

SEXOLOGIA ZENTROA
CENTRO SEXOLÓGICO

Bueno Monreal 1. behea · 01001 Vitoria-Gasteiz
945 265 896 · emaize@emaize.com · www.emaize.com

Oporretan bizi

LITERATURA



DAVID MANGANA

KAZETARIA

Diotenez, Charles Chaplin eta Buster Keatonen artean lehia adiskidetsua zegoen, ea nor zen filmak azpigitulu gutxiagorekin egiteko gai.

Literatura: esateko zailak diren gauzak hitz zehatzekin kontatzea.

Joan berria da uda, irakurketaren urtaroa itxuraz. "Zer liburu hartuko dut oporrak pasatzeko?". Bitxia egin zait beti. Liburu bat oporretan irakurtzeko. Bidaiazteko aukera izatekotan nik ere liburuak sartzen ditut poltsan, baina normalean gutxi irakurri. Aurrean daukadanak istorioak asmatzen ditu etengabe, edo plazerra aurkitzen dut kontaerak neure buruari, denbora lagun, kili-kili ateratzen.

Kurtsoan zehar gehiago irakurtzen dut. Lanaren egunerokoak eta gainerako tirabirak epeldu edo orekatzeko, historiari beste kolore batzuk emateko, alboan istorio paralelo bat izateko beharra daukat. Beharra da edo ihesbide hutsa? Ez nago oso ziur. Agian droga bat besterik ez da, eta konturatu –nahi– gabe mendekotasunak jota nago. Baina, egia esanda, sentitzen dut gorputzak irakurketa elikadura bezala jasotzen duela, berdinean eleberri beltza edo entsegua, berdinean klasikoak edo garaikideak. Orojalea da.



KOUROSH QAFFARI / UNSPLASH

Agian horregatik askotan izarrei begira nago. Ez duzu inoiz pentsatu jeinu bat agertzekotan zure hiru desioak zeintzuk izango ziren? Nik beti izan dut buruan lehena. Berehala munduko hizkuntza guztiak jakin. Imajinatu. Edonorekin, edonon, edonoiz hitz egiteko gaitasuna izan, eta hizketa guzti-guztiak ulertu... Bai, bai, gero jeinua aurrez-aurre, dardarka lanpara eskuetan, ziur aski lehenengoz dirua edo desio amaigabeak –trikimailu zaharra– eskatuko

**ITZULPENEN BIDEZ,
LITERATURA DA
NIRETZAT MUNDUA
SAKON GOZATZEKO
TRESNARIK ZINTZOENA**

nituzke. Ez epaitu, zoaz pikutara!

Kontua da oporraldiez gain, esperantoak porrot eginda eta jeinuak ametsetan baino ez, literatura dela niretzat mundua sakon gozatzeko tresnarik zintzoena. Itzulpenen bidez, herri guztietako historia zein istorioak eskura dauzkagu. Duela gutxi, adibidez, Chimamanda Ngozi Adichieri esker Nigerian, Estatu Batuetan eta Ingalaterran ibili naiz, *Americanah* eleberria gida hartuta. Aspaldi liburu potolo bat irakurri gabe, seiehun orrialde, eta guztiz merezi du. Behar zuen neurria hori zen, kontatu nahi zuena kontatzeko erabili behar zituen hitz kopuru zehatza.

Bai, hitzez, mezuz eta post-ez blai bizi gara, ideiez beteta, burua lehertzeko zorian, arazoz eta betebeharez inguratuta. Nahaste-borraste horretan irakurtzeak ahalegin handia eskatzen duela onartzen dut. Baita bizitza, bizi izatea besterik ez, libururik gabe, oso polita izan daitekeela ere. Agian gaixotasuna aitortu nahi ez duen yonki bat besterik ez naiz, baina behar dut, gustatzen zait liburu baten azpigitulu zehatzak nire azpian –alboan– izatea, niretzat istorioak gure historia hobeto ulertzeko bideak direlako. Edo akaso, liburu bat beti poltsan, oporretan bizitzeko sententzia besterik ez dut nahi?

Ah, zera, Charlotek irabazi zuen. ■■■

Koloreztatu

BARRUTIA IKASTOLA - LH 6

Jarraian adierazita azaltzen zaizkizun koloreak erabili ditzakezu marrazkia koloreztatzeko.

- 1. Arrosa
- 2. Marroi argia edo laranja
- 3. Txuria
- 4. Morea
- 5. Horia
- 6. Urdin argia



Araban da, baina... nola du izena irudiko mendiak?

IKA EUSKALTEGIA



Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, eman erantzuna gure webgunean:

alea.eus/bereziak/ika31

Irabazleak:

Florida zinemarako sarrerak: Iñaki Anda.

Aretha Franklini omenaldia: Paula Amilburu eta Arantza Hidalgo.



'Utzi mezua seinalearen ondoren' antzezlanerako Bi sarrera bikoitz

Tanttaka antzerki taldeak 'Utzi mezua seinalearen ondoren' izeneko antzezlan aurreratu du urriaren 22an Gasteizko Principal Antzokian, 20:30ean. ALEAk bi sarrera bikoitz zozkatuko ditu. Parte hartu urriaren 16a baino lehen; urriaren 18ko ALEAn kaleratuko ditugu irabazleen izenak.



Ibernalo landetxean bazkaria Bi lagunentzat

Kanpezuko Ibernalo landetxean astelehenerik ostiralera bitartean bazkaltzeko bi pertsonarentzako eguneko menua zozkatuko du ALEAk. Parte hartu urriaren 23a baino lehen; hilaren 25eko ALEAn publikatuko ditugu irabazleen izena.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Urriaren 11tik 17ra

Euskararen agenda

MUSIKA

LAUDIO Ibil Bedi

Arrastiak Faktorian zikloa.
Ostirala 11, 20:00etan, Ekintzen Faktorian.

GASTEIZ Gatibu

Ostirala 11, 21:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

AGURAIN Akerbeltz

Herriko jaien barruan.
Ostirala 11, 23:00etan, txosnagunean.

AGURAIN Alerta Gorria

Herriko jaien barruan.
Larunbata 12, 23:00etan, txosnagunean.

AGURAIN Joselu Anaiak

Herriko jaien barruan.
Igandea 13, 22:00etan, San Juan plazan.

HAURRAK

GASTEIZ 'Hezeguneko ezkutuko biztanleak'

Salburuko hezeguneko organismo eta formak behatzeko saioa. 5-10 urte bitartean.
Larunbata 12, 11:30ean, Salburuko Ataria gunean.

LAUDIO Sorgin Zapatuak

Txuski eta Kurruski pailazoan saioa. Eskulan saioa eta askaria ere izango dira.
Larunbata 12, 17:30ean, Lamuza parkeko frontoi etxean.



DANI BLANCO

ARAMAIO Bertso bazkaria

Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikanorekin.
Larunbata 12, 15:00etan, Kasatxon.

DANTZA

AGURAIN Euskal dantzak

Jeiki taldearen eskutik.
Igandea 13, 13:00etan, Santa Maria plazan.

GASTEIZ 'Otsoa'

Larrua konpainiaren eskutik. Miguel Ballabriga, Helena Wilhelmsson, Aritz Lopez, Begoña Martin eta Maddi Muñoz dantzariekin. Jordi Villasecaren koreografia.
Osteguna 17, 20:30ean, Principal antzokian.

BERTSOLARITZA

ARGANTZUN Bertso bazkaria

Unai Anda, Aroa Arrizubieta, Peio Ormazabal, Ane Peñagarikano eta Oihane Perea bertsolariekin. Herri Txikien Eguna.
Larunbata 12, 15:00etan.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Judu-espainiera'

Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituen zikloa. Amelia Barquin MUKO irakasle eta ikertzailearekin.
Asteazkena 16, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.


GASTEIZ 'Ikerketa kazetaritzaren bilakaera Euskal Herrian'

Ahoztar Zelaieta kazetariarekin. Adi! elkartearen eskutik.
Osteguna 17, 19:00etan, gaztetxean.

BESTELAKOAK

LAUDIO Irakurle Klub Feminista

Klubaren aurkezpen ekitaldia. Hileko hirugarren asteazkenetan egingo dira saioak.
Asteazkena 16, 17:30ean, udal liburutegian.



ALEA

OION 'Kontuak eta Kantuak Araban'

Musika eta literatura ikuskizuna. Gontzal Mendibil eta Iñaki Garcia Uriberekin.
Ostirala 11, 19:30ean, zinean.

GASTEIZ Euskal literatura eta artea: irakurle taldea

Xabier Gantzarainen 'Zuloa' izango dute solasgai. Mikel Ayerbe gidari.
Osteguna 17, 19:30ean, Artiumen.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ The Godfathers

The Flaming Sideburns taldearekin.
Larunbata 12, 22:30ean, Hell Dorado aretoan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'La viga'

Carmen San Esteban, Asier Macazaga, Pilar Gil, Gaizka Ugarte aktoreekin.
Ostiral, larunbat eta igandean, 20:00etan, Montehermoson.

BESTELAKOAK

KANPEZU 'Zirkulatzeko prest'

Jolas erraldoiak, tailerrak eta bide zirkuitua.
Igandea 13, 11:00etan, plazan.

LEGUTIO Albertiara martxa

Mendi irteera egingo dute Albertiara, Urriara Kulturala programaren barruan. Laguntza txistulari taldearen eskutik.
Igandea 13, 09:30ean, plazan.

GASTEIZ Idiazabal gazta

Idiazabal gazta ezagutzeko, solasaldia eta dastaketa. Aritz Ganborarekin. Gazte eta helduentzat. Gaztelaniaz izango da.
Asteazkena 16, 19:00etan, Ariznabarreko gizarte etxean.

Euskararen Agendako hitzordu guztiak ikusteko:

alea.eus/agenda

GASTEIZ 'Play'

Carolina Arija, Jorge Brea, Raquel de la Plaza, Jonatan de Luis, Jimena Trueba eta Cover Elena Garcia antzezleekin.
Igandea 13, 18:00etan, Principal antzokian.



IKASTURTE BERRIA 2019 / 20

HEI

HERRITARTASUNERAKO ESKOLA IREKIA
ESCUELA ABIERTA DE LA CIUDADANÍA

**Hitzaldiak, mintegiak,
prestakuntza-jarduerak,
bisitak, zineforuma,
kafe-tertulia eta askoz gehiago.**

***Izan zaitez
herritar aktiboa!***

info+: tel 010 | vitoria-gasteiz.org/hei

